

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Portugaletako Udala****Portugaleten boluntariotza sustatzeko diru-laguntzen 2019ko deialdia onetsi**

Portugaletako Gobernu Batzordeak 2019ko apirilaren 30ean eginiko ohiko bilkuran onetsi zuen Portugaleten boluntariotza sustatzeko diru-laguntzen 2019ko deialdia, artikulua hauexek diotenarekin bat etorriz:

**1. artikulua. — Xedea**

Portugaletako Udalak dei egiten du jarduera Portugaleten burutzen duten irabazi asmorik gabeko entitate pribatuek diru-laguntzak eska ditzaten, Portugaleten boluntariotza eta gizartean esku-hartzeko eremuan elkartegintza eta parte-hartzea sustatu eta indartzeko ekintzak burutzeko.

Hona hemen diru-laguntza hauen lerroak:

- a) Diru-laguntzak boluntariotza sustatzeko proiektuetarako; diru-laguntza hauen ondorioetarako, boluntariotza sustatzeko proiektuak dira boluntarioak erakarri, sensibilizatu, hedatu, fidelizatu eta prestatu eta elkarleen antolamendua eta egitura indartzekoak.
- b) Diru-laguntzak Portugaleten Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa bultzatzeko egitasmoetarako. Egitasmo horiek zehatz-mehatz oinarri izan behar dute ikaskuntzari eta zerbitzuari buruzko alderdietan. Horren kariaz, egitasmoek deskribatu behar dute parte-hartzaileek egitasmoa burutzean nola parte hartzen duten, alegia, beharrak antzemateko, egitasmoa diseinatu, burutu baita azken ebaluazioa egiteko orduan ere.

**2. artikulua. — Entitate onuradunak**

Onuradunak izan ahalko dira eta beraz, diru-laguntza hauen eskatzaileak izango dira betekizunok betetzen dituzten entitate pribatu guztiak:

- Irabazi-asmorik gabeko entitateak izatea.
- Portugaleten egoitza soziala edo ordezkaritza izatea edo Portugaleten presentzia aktiboa izatea. Izan ere, presentzia aktibotzat ulertuko da boluntariotza arloan lan jarraitua eta proiektuak nahiz jarduerak Portugaleten egitea diru-laguntza hauen deialdia baino lehenago.
- Boluntariotza Portugaleten sustatzeko diruz lagunduak izatea nahi duten jarduerak Portugaleten egitea.
- Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan agertutako betekizunetaz gain, ondoko hauek ere betetzea:
  - a) Gizarte Segurantzarekin tributu-beharrak, indarreko xehapenek ezarritakoak, ordainduta izatea.
  - b) Portugaletako Udalarekin diru-laguntzak itzuli behar izateagatik ordainketak egunean edukitzea.

**3. artikulua. — Arauak**

Deialdi honen arauak boluntariotza Portugaleten sustatzeko diru-laguntzen oinarri-arauak dira, Portugaletako Udalbatzak 2018ko ekainaren 28an eginiko ohiko bilkuran onetsiak. Arauok Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (2018ko abuztuaren 1ekoa, 147. zk.) argitaratu ziren.

**4. artikulua. — Eskaerak noiz eta non egin**

1. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita hilabetekoa izango da.



2. Diruz lagundu daitezkeen jardueren epea deialdi honen ekitaldikoa da.
3. Eskerak eta nahitaezko agiriak inprimaki-ereduaren arabera (I. eranskina) aurkeztuko dira leku hauetan:
  - Udaletxeko Erregistro Orokorrean (Solar plaza, z. g.) goizez 8:00etatik 14:00etara.
  - Herritarrentzako Informazio eta Harrera Bulegoan (San Roke plaza, z.g.) arratsaldez 15:00etatik 20:15era eta larunbatetan 9:30etik 13:45era.
  - Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak aurreikusitako edozeinetan.

**4. artikulua. — Zenbatekoa**

Aurrekontuko kreditu erabilgarria hogeita zazpi mila eurokoa da (27.000 €), indarreko aurrekontuaren 01.9240.481.01 diru-sailaren kargura.

Portugaleten, 2019ko apirilaren 30ean. — Alkatea, Mikel Torres Lorenzo